

# ttüpi-ttapa

1994ko azaroak 17 • 146. zenbakia

Elkarrizketa

**Alfonsito REY**  
beratarrarekin



# ESKOLAZ KANPOKO IKASKETAK



Erraztasunak  
ordainketarako

# MINKKA

## Zume eta kainaberazko mobleak




Koltxoiak eta somierrak  
Dohainik

1994ko ABENDUAREN 31 ARTE BALIATZEN AHAL DA AUKERA HONETAZ

- ✓ Logelak 'armarioa barne' 124.000 Ptatik aitzinera.
- ✓ Jangelak, Egongelak
- ✓ Moble osagarriak

LARUNBAT  
ARRATSALDETAN IREKIA



Lope de Irigoien, (Bidasoa zinetik jeitsiz) 10

IRUN • Tfnoa: (943) 61 19 28

# 8,5

%  
T.A.E.

3 URTE TETARAKO  
GARANTIZATUTA

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



## DATUAK

❖ *Alfonsito Rey 27 urteko beratarra da.*

❖ *Hiru anai-arreben artean zaharrena da. Bi arreba gazteagoak ditu.*

❖ *Jaiotzetik «burmuineko paralisia» bezala ezagututako eritasuna du.*

❖ *Ezinduen Euskal Kolektiboko kidea da.*

❖ *Elkarte horretako kupoiak saltzen ibiltzen da, harat-honatean auto-stop eginez.*

# Alfonsito REY: «Arazo fisikoak izanagatik edozein pertsona bezalakoak gara»

**GIZARTEAK NOLA IKUSTEN DITU BURMUIN ELBARRIAK? GUTTIAGO BAZINA BEZALA BEGIRATZEN ZAITUZTE?**

Bada denetik. Badi-ra goitik behiti begiratzen zaituztenak eta badira hagitz ongi tratatzen zaituztenak. Zerbait guttiago banintz bezala begiratzen nautenean moztua gelditzen naiz.

**ZERBAIT ERRANEN ZENIEKE?**

Zergatzen den eta nitaz zer nahi duten galdetuko nieke. Guri ulertzen arreta edo kontu gehiago paratu behar dute. Lerdoak edo tontoak garella uste dute eta hori ez da horrela. Bertze edozein pertsona bezalakoak gara, nahiz eta arazo fisikoak izan. Horixe da errealitatea.

**LANEAN NOLA MOLDATZEN ZARA?**

Ezinduen Euskal Kolektibokokidea naiz eta kupoiak saltzen aritzen naiz alde bategatik bertzerara, ONCEkoek egiten duten bezalaxe. Duela urte batzuk ONCEk ere lana eskaini zigun, baina gaur arte. Soldata kupoiak salduz ateratzen dut bizitzekoa, Administrazioak hilabetero



ematen duena mixeria baita. Hortik ez dago bizitzerik.

**ETA SARIREN BAT BANATU DUZU?**

Jendeak erraten du nere kupoietan ez dela deustokatzen, bainanik erraten diet, 'ez baduzu erosten nola tokatuko zaizu ba?' Joan den urtean bi milioi t'erdiko sari nagusia eman nuen

Hondarribian. Ea aurtengoan hemen inguruan tokatzen den.

**LANETIK APARTE ZER EGITEN DUZU GUSTORA?**

Bidaiatzea aunitz gustatzen zait, baina denbora zatirik haundiena Donostiako soziedadean ematen dut. Bertan, txapelketa eta irteera aunitz egiten ditugu, baita bertze gauzak ere... Ederki pasatzen dugu.

**AZKEN ALDIAN AUNIZTAN AGERTZEN ZARA ETB-2KO 'RIFI-RAFE' SAIOAN.**

**NOLA EGIN ZARA HAIN FAMATUA?**

Euskal Telebistan lan egiten duen bizilagun bat dut eta bere birtartez programa horretara joatera gonbidatu ninduten eta orain segitzen dut. Hagitz ongi tratatzen naute, bai Antxon Urrusolok baita gainerako guztiek ere. Normalean, Donostiako bi lagunekin joaten naiz, Marisa eta Susanarekin. Ahizpak dira eta ni bezala ezinduak. Berako jendea ere nerekin eraman dut programara.

» *«Jendeak erraten du nik saltzen ditudan kupoietan ez dela deustokatzen eta nik erraten diet, ez baduzu erosten nola tokatuko zaizu ba?»*

TESTUA:

AITOR AROZENA

ARGAZKIA:

JOXEMANUEL IRIGOIEN





# ESKOLAZ KANPOKO IKASKETAK: SAKONEKO FORMAZIOA EDO AZALEKO ITXURAKETA

**Seme alabentzat hoberena nahi da, etorkizunean, status soziala eta arrakasta segurtatua izateko. Komunikabide-etatik eredu hori proiektatzen zaigu gelditu gabe, formazio haundiko gaztea, hizkuntzak menpereratzten dituen, itxura onekoa, fisikoki ere bai... Baina pentsatu ote dugu inoiz telebistatik saltzen diguten eredu hori gure umeentzat hoberena ote den?**

TESTUA  
JOXEMANUEL IRIGOIEN

**g**auza normala da, han eta hemen galdetuz ikusi ahal izan dugunez, edozein umek eskolatik kanpo gutienez bertze bi aktibitate edo ikasketa burutzea. Fenomeno hau, berez, berria da gure herrietako errealtatean, gehienez ere azken hamar urteotatik honatekoa baita.


Pedagogoa eta Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea den Xabier Etxagueren iritziz, 'guzti hau, gaur egun egiten ari garen gizartearen islada bat da'.

Lan munduan eta orohar gizartean barne barneraino sartzen ari den konpetibitateari eta etorkizunak ekar ditzakeen erronkei erantzuteko, formaziorik hoberena

ematen saiatzen dira gurasoak, baina Etxagueren ustez, ume bati eskola ordutik kanpo hainbetez aktibitate eta ikasketa osagarri betetzea ez da helburu hori lortzeko biderik egokiena. Horrek luze gabe nolabaiteko 'desengainua' ere ekarriko du. 'Ezin gara espezializatu hainbeste arlotan. Azaleko itxuraketa lortzen da baina sakonean horrek ez du egiazko formaziorik ekartzen. Umeak azaleko itxura horiek hartzen ditu bere inguruko exigentziak baretu eta erantzuteko, baina ez ditu bere baitan bereganatzen. Gero-gera porrotak eta haurtzaroko stressak etortzen dira'.

**ADIN BAKOITZEAN  
ADIN HORRI DAGOKION  
FORMAZIOA**

Umearen adinean umeari dagokion eta adin horretan be-



**Xabier ETXAGUE**

Pedagogoa eta  
EHUko irakaslea

► *"Indarrean dagoen gizarte ereduak interes jakin batzuri erantzuten dio eta gizatasunari atxikitako baloreak galtzen ari dira"*

har duen formazioa eskaini behar da. Eta ez hori bakarrik. Xabier Etxaguek dioenez, adin horretako neska mutikoetan sozializazio prozesua bereziki zaindu, bultzatu eta aberastu beharra dago. Garai horretan, 'umeak bere berdinekin elkarrekin-tza behar du bere rol sozialak ikasteko, eta elkarrekin-tza horrek librea izan behar du, zuzendu eta arautu gabea'. Horixe da Etxagueren ustez, umeak bere autoestima gartzeko duen biderik egokiena. 'Bestelako sozializazio prozesu arautu eta estriktoek ez dute askatzen umeek bere baitan dituzten nahi, behar eta gogoak'.

Azken urteotan, ordea, badi-rudi umeen sozializazio agentziek aldatzen ari direla, nahiz eta, Etxagueren ustez, 'herriitikiotan oraindik orain



sozializazio prozesua aisa aberatsagoa den, batez ere, errealitate eta kultura urbanoekin konparatzen baldin bada. Gure herriotan familiak eta familiaren ingurukoek funtzio nagusia betetzen dute, eta lagun taldeak

elkar-ekintzan eragiten du. Hori arras aberatsa da. Kultura urbanoan, ordea, umeak ez dira bakarrik familia eta eskolaren bidez sozializatzen, eta prozesu horretan beste agentzia batzuk ere sartzen dira —kirol taldeak, denbora libreko taldeak, musika eskolak, judo eskolak...—.

#### GIZA BALOREAK ETA ZORIONTASUNA

Xabier Etxague pedagogoak dioenez, kezagarria da telebistatik saltzen diguten kultura eta gizaki-ereduak gure artean hartu duen indarra. Horren arabera, 'status soziala eta arrakasta soziala lortzeko, formakuntza haundia, hizkuntzak eta itxura ona behar dira. Bainan, kontua zera da; egiatan eredu horizoriontasunarekin lotuta dago? Zorionsua izateko beharrezkoa da eredu horri erantzutea? Egia erran —dio Xabierrek— ez dut uste hori horrela denik, ezta gutxiagorik ere. Nire ustez familiaren ikuspuntua galtzen ari gara. Zoriontasunari begiratu beharrean, eredu horri begiratzen diogu, eta hortxe dago koxka. Nire ustez gizatasunari egokituko den kultura berri bat eraiki behar du.

Gaur egun indarrean dagoen ereduak interes jakin batzuei erantzuten dio, eta gizatasunari atxikitako baloreak, berriro errekuiperatu beharrean, galtzen ari dira ■

ESKOLATIK KANPO GUTIEZ BERTZE BI AKTIBITATE EDU IKASKETA BURUTZEA GAUZA NORMALA DA; HIZKUNTZAK, MUSIKA, KIROLAK...

HAURREK ERE 'ORDU ESTRAK' SARTZEN DITUZTE.



### ZER DIOTE HAURREK?



**Olatz GERRERO**

13 urte, Leitza

“Eskolatik ateratzen naizenean mekanografia eta dantza ikasten dut. Mekanografia astean bi egunez ordu bat, eta dantzarekin erregeak pasa ondotik hasiko naiz. Lagun gehienak ere ikasten dute judo, solfeo, informatika... Ni gustora joaten naiz.”



**Kristina SAINZ**

13 urte, Sunbilla

“Trikitiia eta ingeles klasetara joaten naiz astean bi egunez ordu bat. Niri nekagarria iduritzen zait bainan halere etxean joateko erratan didate. Baditut lagunak ingeles, solfeo, akordeoi, piano eta abesbatza klasetara joaten direnak.”



**Josu VAZQUEZ**

11 urte, Lesaka

“Futbola eta dantza izaten ditut eta nire lagunak ere futbola, dantza, pilota, solfeo, ingeles eta akordeoia ikasten dute. Ni arras gustora joaten naiz futboleari aritzera astean bi egunez eta nire lagunak ere gustora joaten dira beren klasetara.”



**Maria ERRANDONEA**

11 urte, Bera

“Klasetik ateri eta egunero piano klasetara joaten naiz eta bertze bi egunetan solfeo klasera. Nire lagunak ere berdin egiten dute eta eskola ondotik ingeles, pintura, solfeo eta trikitiia ikasten dute. Niretzat solfeoa nekagarriagoa da piano baino.”



**Jon ELIZETXE**

10 urte, Elizondo

“Larunbatetan futbito taldean jostatzera joaten naiz eta ortziraletan bertso-eskolara. Baditut zenbait lagun pilota eskolara ere joaten direnak. Neska gehienak, berriz, mekanografia ikasten dute.”



**Julia ALMANDOZ**

10 urte, Sara

“Astegunetan, eskolakoaz kanpo ez dut bertze ikasketarik izaiten. Larunbatetan oren batez dantzak ikasten ditut eta pottokan ibiltzen ere hastekoa naiz. Nere adineko lagunak ere dantza ikasten dute eta ez bertzerik.”



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 5.900 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPi-TTAPA KE  
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA.: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**uzendaria:** Joxemanuel Iri-  
oi. **Publizitatea:** Miren Kar-  
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-  
tor Arozena, Joxemanuel Iri-  
oi. **Erredakzio taldea:** Pe-  
lo Apezetxea, Juainas Paul,  
Kristina Boan, Bittori Telletxea.  
**erriemaileak:** Joseba Azpi-  
oz, Esteban Arozena, Juana  
Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria,  
Dan Isasi, Txema Aldabe, Pello  
Etxegia, Txema Urroz, Patxi  
Otxandorena, Daniel Martirena,  
Kabel Maia, Josune Etxebeste,  
Pablo Mendiburu, Joseba Iga-  
labide, Alizia Olaizola, Margari  
Etxenike, Koro Irazoki, Mixel  
Berendiain, Jacqueline, Marta  
Urria, Oskar Txoperena, Al-  
berto Sansiñena, Pello Apeze-  
txea, Aitor Arozena, Kristina  
Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE  
Nafarroa, Patxi Laso, Josetxo  
Lusperregi.

**primategia:** Gertu (Oñati).  
**ttipi-ttapa** ez du bere gain  
artzen derrigorrez, aldizkarian  
dierazitako erranen eta eritzien  
erantzukizunik

**irakunde Laguntzaileak:**  
Bera, Leiza, Goizueta, Areso,  
Baztan, Urdazubi, Zugarramur-  
ri eta Sarako udalak, Bor-  
ziriarietako Euskara Mankomuni-  
tatea, Malerreka Zerbitzu  
Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Bakeratze prozesua Euskal Herrian

#### Irlandan eramandako prozesuak itxaropenez bete gaitu



Martin LEGARRA  
Elkarriko kidea

Euskal Herriko  
bakeratzearen-  
tzat uda hasie-  
ra ez da eraginkorra izan. Al-  
derdiak bergizarteratzeare-  
kin nahasiak ibili dira. Azke-  
nean, bi gauza argitu dira:  
bergizarteratzea preso bakoit-  
zari dagokion eskubidea dela  
eta euskal preso kopuruari  
dagokionez bide hori agortu-  
ta dagoela. Abuztuaren azke-  
nean, IRAREN su etenak, gure  
politikoak jokuz kanpo har-  
rapatu zituen. Arazoak mol-  
datzeko elkarrizketa dela bi-  
derik zuzenena pentsatzen  
dugunoi, berriz, itxaropenez  
bete gaitu. Su eten horretan bi  
elementu inportante egon dir-  
a: gatazkan inplikatuak  
dauden aldeak sekretupean  
eramandako elkarrizketak eta  
lortutako akordioa, eta bert-  
zetik, Sinn Féin-IRA taldeen  
barnean egindako ausnarke-  
taren ondorioz ateratako  
konklusioa: "borroka arma-  
tua ez delahelburu politikoak  
lortzeko biderik egokiena".  
Irlandakoak, elkarrizketaren  
alde agertzera behartu ditu  
hemengo partiduak.

#### Bakea lortzeko, lehen lehenik, bakea nahi behar da



Jon GORTARI  
Oronozkoa

Dudarik gabe  
bakea posible  
da Euskal Her-  
rian, beti horren aldekoa izan  
baita nahiz eta hainbat bu-  
rruka ezagutu. Gaur ere pake  
horren gose egarri sentitzen  
da. Herri honek behar duen  
pakeak atek zabalik dauzka.  
Bakarrik, nahi behar da bakea  
lortu eta bake horren bideak  
zuzendu, elkartu eta azken  
finean, nahi izan. Bakea arra-  
zoiaren indarrarekin lortu  
behar genuke gainera, geure  
eskubidea baita bakean bizi-  
tzea.  
Euskaldun guzian arteko  
ulerbide hobeak lortu behar da.  
Zoritxarrez nahiko nahasiak  
bizi gara eta guziok elka-  
rrengandik hurbilago bizi  
beharraren premia dugu.  
Zoritxarrez, sobera geure alde  
bizi gara, bakoitzak bere  
santuari erregutu eta kitto.  
Gauza ote gara euskaldunok  
geure erruak aztertu eta zu-  
zutzeko? Bai, nik uste etxe-  
tik hasi beharko zela baina  
kapable gara gauza horiek  
zuzutzeko. Bakarrik, nahi  
behar da.

#### Sakoneko bakeratzea lortzeko gizarte berria eraiki beharko dugu



Alejandro ARIZKUN  
NUPeko irakaslea

Euskal Herria-  
ren bakeratzea  
gaur egun posi-  
blea, beharrezkoa eta zaila da.  
Sakoneko bakeratzea, halere,  
gaurkoekin konparatuz era-  
bat oinarri desberdinak izan-  
en dituen gizarte eraikitze-  
rakoan lortuko dugu: hau da,  
elkartasuna, berdintasun so-  
ziala, errealitate nazionalen  
errespetoa...  
Gaur egun aunitz dira aldatu  
nahi ez dutenak, badaude  
deus egin nahi ez dutenak  
ere, eta bertzeak, ez dakite zer  
egin... Horregatik, bake hori  
ez dago hurbil. Lortu ahal  
izateko, behar beharrezko  
tresna iduritzen zait gauzak  
sakonki aldatu nahi dituzten  
borondate gehiagoren pre-  
sioa.  
Bainan hurbilago egon behar  
du gatazkaren espresiorik  
bortitzenak desagertaraztea  
posible egingen duen sistema-  
ren bat aurkitzea. ETAREN su  
eten batek gauzak erraztuko  
lituzke. Baita espainiar go-  
bernuaren jarrera ez hain be-  
ligerante batek ere.

## Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako  
PROFESIONAL, KOMERTZIO eta LANTEGI guztien


## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala.
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herriko eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa desberdinekin.

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • © 63 11 88



## BOTA BERTSOA



**Bittor ELIZAGOIEN**  
Neurria: Hamarreko Haundia

### Zein da bakerako bidea?

*Bakea askon ametsa dela  
nik hori ez dut ukatzen  
politikoen ahotan ez da  
bertze gauzarik aipatzen  
baina batzuen jokabidea  
ez da errexu ulertzen  
Benemerita ta zipaioak  
bakezaleak zapaltzen  
bide hortatik zaila daukagu  
ametsa egi bihurtzen.*

*Ahaztu ditzaten aulki haundiak  
edo diru egarria  
denok onartu Euskalerria  
dela gure aberria  
Ajuria Eneko mahaia desegin  
ireki mahai bat berria  
elkarrizketa izanen baita  
bakearen oinarria  
hori lortzean iritsiko da  
Euskadin udaberria.*

### Patxiren koherentzia

Urriak 13, Iruñako gartzela. Egun guztia elkarrekin pasa eta gero, bazkaria, irriak,... Patxi gartzelan presentatu zen.

Pentsatzen dena erratea; erraten dena egitea. Hori omen da koherentzia. Halaxe haiz hi, Patxi!! Kultur militarra eta haren Ordezko Zerbitzu "zigor" hori hire kontzientziaren kontraokoak zirenez intsumisioa deklaratu huen hire burua. Baina ate hura zeharkatu huenean denoi zerbait hautsi zitzaigun bihotzean... krak!!! Gure "zertxobait" geratzen zen han barrenean.

Gurea bakarrik? Beharbada zuena ere bai, hire kontua ez bailitzan artikululu hau harriduraz irakurtzen dudan neska hori; edo zuen semea soldaduzkara joana eta zer gertatuko ote zaion kezkatuik zaudeten aita-ama horiek; edo hire burua uniforme eta kultur militar baten barruan ikusten ez duen gazte hori; edo pakea, gauza aunitz bezala, norberarengatik hasten dela pentsatzen duzun hori.

Hirugarren gradoa hartu eta agudo izanen da gu-

rekin Patxi, bai; baina gauero, gartzelara itzultzean, guztion "zerbait" han geratuko da. Patxi, harro sentitzen naiz hi bezalako laguna izateaz! hire zama, txinaurriarena bezala, handia hiretzako, txikia gizarte honentzako, ez da alferrikakoa izanen, egunen batetan militarren inperioa beheti heldu baita.

Ostatuko beheko sua pizturik dago, ez hoztu delakotz, hi ateratzekin kostillada xamur bat egiteko baizik. Aupa eta ongi etorrria, Patxi!!

Gora Intsumisioa!

MIKEL ALBISU  
(BEINTZA-LABAIEN)

### Akats batez ohartaraziz

Kaixo TTIPI-TTAPAKO arduradunak! Ni irakurle bat nauzue, akats batez ohartu naiz eta adierazi nahi dizuet.

Azkeneko aldizkarian, hau da, 1994-XI-3an argitaratua, 145. zenbakia, 'Herriz Herri' atalean, Baztanera ailegatzeko garenean, berriak dio Ongizaite Sozialerako Sailatik diru laguntza bat jaso dutela 'M<sup>a</sup> Josefa Recio' erresiden-

tziak eta 'Nuestra Señora del Pilar' klinikak. Hau horrelaxe da baina argazkian ikusten den erresidencia ez da ez bata ez bertzea, 'Fco. Joaquin Iriarte' baizik.

Bestela etzuen garrantzi haundirik izanen baina gehien izorratzen nauena: dirulaguntza jaso dutenak entitate pribatuak direla. Argazkian ateratzen dena, berriz, publikoa da eta ez du diru laguntzarik jaso, nik dakidanik behintzat. Esker mila entzuteagatik.

M. ANGEL



### OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten,  
ez da komeni makinaz idatzitako  
25 lerro baino luzeago idaztea  
gutun hauetan.  
Idatzi duenaren izen-deiturak,  
telefonoa, helbidea eta ENAaren  
zenbakia agertu beharko dira.  
Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**  
bere esku izanen du horretarako  
eskubidea.*



## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735  
IRUN ☎ (943) 622305



## ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA  
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxo
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak



**ALDO OSTAUA**

**LESACA**





IRUTXULO 94-X-28

«Oso diskriminatuak gaude emakumeak kiroletan. Mundialeko partiduetan adibidez, nesken partidurik ez zen agertu telebistan eta zenbait neska bazeuden. Beste kiroletan ere, gehienez emaitzak agertzen dira».

**Xole eta Mirari ETXEGIA**  
Goizuetako pilotariak  
IRUTXULO 94-X-28

«Programa bat eta hautesleekiko konpromezua bat izateak Legebiltzarrean defenditu beharra dakar».

**Patxi ZABALETA**  
HBko Mahai Nazionalakoa  
EL MUNDO 94-XI-7

### ◆ Zein da gehien gustatzen zaizun kirola?

❖ Herri kiroletan sokatira eta bertzenaz futbola.

### ◆ Zein izan da zure idoloa?

❖ Txikitan Latasa entrenatzen ikusten nuen eta honela sartu zitzaidan afizioa.

### ◆ Historiako aizkolaririk onena?

❖ Latasa bere garaian ona zen eta gaur egun Mindegia hagitz ona da.

### ◆ Iñaki Perurena ala Mikel Mindegia?

❖ Bakoitza bere espezialidadean onena da.

### ◆ Sokatira, lur gainean ala goma gainean?

❖ Goma gainean gehiago gustatzen zait eta Nafarroan ez da lur gainean egiten.

### ◆ Tiratu aitzinetik, txuleta ala makarroiak?

❖ Lehenbiziko makarroiak eta gero txuleta eder bat.

### ◆ Eta ondotik, ardo tragoxka ala 'Isostar'?

❖ Isostar erran beharko dugu.

### ◆ Urte sasoi politena zein da zuretzat?

❖ Udazkena polita da eta hilabeterik hoberena, iraila.

### ◆ Ehizian ibiltzen zara?


❖ Ez, ez naiz ibiltzen.

### ◆ Zer falta da Sunbillan?

❖ Hagitz ongi dago, dagoen bezala.

### ◆ Izanen dugu berriz Sunbillan herri kirol talderik?

❖ Hagitz zaila ikusten dut, aunitz sufritu behar da eta...



**Antonio ESPEOSIN**

Sunbillako entrenatzailea

E D A R I A K



Bidasoa K / 82 - 31780 BERA

Tel. - Fax: 948. 63 10 27

## ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

SAROBEn  
okindegia 

SANDERS Pentuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Zati honek **3.000 Pta.** balio ditu

**ttipi-ttapa**

☎ 63 11 88





## Euskarari buruzko hitzaldiak burutzen ari dira egunotan

Bertzalde, Karraka antzerki taldeak 'Pecata Minuta' lana antzestuko du azaroaren 19an

KRISTINA BOAN

Berako Euskara Batzordeak, urtero bezala, udazken partean antolatzen dituen jardunaldiak hasiak dira dagoeneko. 'Euskarari buruzko hitzaldiak' izenburupean euskararen osasuna, egoera eta orain arte Bortzirietan egindakoa aztertu nahi da.

Gaurbertan, azaroak 17, Kike Amunarriz solasean arituko da "Egungo euskararen egoera Bortzirietan" zein den aztertzen.

Azaroaren 22an, Iñaki Arrutik euskararen planifikazioa izanen du solasgai. eta 24ean, Tolosako Galtzaundi, Aretxabale-tako Beinke eta Nafarroako zenbait euskara talderen esperientziak erakutsiko dira mahainguruan. Hitzaldi guzi hauek Iamotenean izanen dira arratsaldeko 7etan.

Guzi honekin batera, Kultur Zikloaren ba-



Azaroaren 25ean akautzen da 'X. Bidadoa' bertso paper lehiaketara lanak aurkezteko epea

Arg.: ARTXIBOA

rrenean, Karraka antzerki taldearen 'Pecata Minuta' lana antzestuko da Berako kultur etxean, azaroaren 19an. Arratseko 10etan hasiko da eta antzesleak, ETBn aski famatuak egin diren Elena Irureta, Aitzpea Goenaga, Ane Gabarain eta Loli Astoreka izanen dira. Gidoiegilea eta zuzendaria berriz, Ramon Barrea da.

### Zaharretxeko lehen harria

Azaroaren 24ean, San Jose Zahar-etxe berriko lehen harria jarriko da. Ekintza sinboliko honek alkate eta autoritateak bilduko ditu. Aitzinekoan termitek solairu eta sapaiak janak zituztelako eraiki da etxe berria. Nafarroako Gobernuak eta udalak eman dute dirulaguntza.

### Bonberoei dirulaguntza

Berako suhiltzaile edo bonbero boluntarioek 687.428 pezetako dirulaguntza jaso dute telekomunikazio ekipo bat erosi ahal izateko. Bertzalde, hiru ibilgailuei aseguru egiteko 371.109 pezetako laguntza hartuko dute Nafarroako Gobernutik.

### ttipi-flash

- ❖ **Abizenak euskaldundu**  
Euskara Batzordeak abizena euskalduntzeko aukera ematen dizu. Interesatua bazau deitu 634125 telefonora.
- ❖ **Santa Cecilia**  
Musikoeneguna ospatzeko, bazkaria antolatu du Berako abesbatzak. Helduak 1.600 pezeta ordaindu beharko dute eta hurrek 875. Izenak, norberaren elkartearen eman behar dira.
- ❖ **Guraso elkarteei dirulaguntza**  
Nafarroako Gobernuak 50.000 pezetako dirulaguntza eman dio Ricardo Baroja ikastetxeko guraso elkarteari, 52.000 Jesusen Bihotza ikastetxekoari eta 55.000 Labiaga ikastetxekoari.
- ❖ **Ricardo Baroja**  
ikastetxeko Guraso Elkartek bi hitzaldi antolatu ditu azaroaren 24 eta abenduaren 1erako. 6etan, 'Familia, eskola eta drogomenpekotasuna' eta 'Aisialdiaz' arituko dira.

© 631076 • BERA

**BOTXO ostatua**  
Tfnoa.: 63 00 52  
Zalain auzoa, BERA

**JOSEMA RAMOS**  
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut  
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

**ANSONEA**  
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630 072 • BERA



**Lesaka**

# Bortzirietako feriak, hurrengo ortzegunean

Asteazkenean ere, azken urteotan bezala ajoarriero lehiaketa eta musika izanen dira



Beti Gazte elkarteak antolatutako argazki lehiaketan parte hartu duten lanekin erakusketa eginen da datorren astean, 20tik 27ra Arg.: Artxiboa

AITOR AROZENA

Datorren ortzegunean, azaroak 24, ospatuko dira feriak. Ortzegun goizean, beti bezala, azienda aunitz ikusiko dira plaza inguruan. Bittiria karrika berriz, saltzaileez gainezka agertuko da, urtetik urtera gehiago etortzen baitira beraien generoa saltzeko asmoz. Eguerdian, bertso saioa izanen da plazan hiru

bertsolarirekin eta arratsalde, profesionalen arteko pilota partiduak. Musika, 'Belea Band' taldearen eskutik izanen da.

Asteazkenean ere zerbait ekitaldi izanen dira. Alde batetik, Beti Gazte elkarteak azken urteotan antolatzen duen ajoarriero txapelketa burutuko da eta Xalbador Madariagaren akordeolari banda arituko da plazan.

## Erreka garbiketa

Irain eskola eta Tantirumairu ikastolako neska-mutilak erreka garbiketa lanetan dira. Joan den larunbatean izan dute lehendabiziko txanda eta hurrengo honetan ere erreka erreka ibiliko dira garbitzen, gurasoekin batera. Herriko taldeak ere animatu nahi dituzte.



Eskaladarako tokia paratu dute konbentuan, fabrika aldeko paretan. Argazkian, Koikili Fagoaga ageri da lanean.

*ttipi-flash*

❖ **Tantirumairu** ikastolako Guraso elkarteak 43.000 pezetako dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta Kultur sailetik.

❖ **509.000** pezetako dirulaguntza jaso du udalak udaltzaintzat ibilgailu bat erosi eta ekipatzeko. Nafarroako Gobernuako Barne sailetik jaso da laguntza hori.

❖ **Kontzertua** Oboe eta organo kontzertua eman zuten elizan azaroaren 5ean Jose Luis Etxetxipia eta Pedro Mari Ruiz Iruñeko musikariek, Nafar Ate-neoak antolatuta.

❖ **Pala txapelketa** Arkupe elkarteak antolatutako paleta gomazko txapelketaren laugarren edizioa martxan da. Bi mailatan banatu da.

❖ **Pagolletako** pista nork zabaldu duen jakiteko ahaleginak egitea eskatu zaio Mendi komisioari. Ehizi denboraldian ibilgailuak pasatu dira bertatik.

Ongi pasa ferietan

## LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK  
• LIBURUAK • OPARIAK

✕ Fax publikoa  
✕ Enkuadernazioak  
✕ Inprenta lanak • Fotokopiak

Legarrea 9 • © 637030  
**LESAKA**

## HILABETEKO ESKEINTZAK

• V-PEN 'PILOT' Luma	340-Pta.	290 Pta.
• Sumadorarako paper erroiloa	75-Pta.	52 Pta.
• 'Vector' Standar Roller Ball	1.000-Pta.	900 Pta.
• 'Kores' 33x19 zelloa	110-Pta.	70 Pta.
• Roller Ball errekanbioa	345-Pta.	310 Pta.
• 'Jovi' akuarelak (12 kolore)	345-Pta.	295 Pta.
• Fax paper erroiloa (210x30)	425-Pta.	380 Pta.
• 'Super Glue-3' pegamentoa	370-Pta.	330 Pta.
• 'Petrus' grapa kaja	70-Pta.	47 Pta.
• 'Petrus' paper taladroa	1.345-Pta.	1.135 Pta.
• 'Petrus' grapadora	2.217-Pta.	1.665 Pta.
• Multitaladro fundak	25-Pta.	12 Pta.

## ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA



**ETXALAR**

# Helduek ere ikasteko gogoia

Hiru ikastaro hasi berriak dira



**Antonio Espelosin**  
«Baxtan»

**Elizaldeko Borda**

Urriaren 18an 96 urte bete ditu herriko zaharretan zaharrena denak. Baztanen Bordan sortu izanak «Baxtan» goitizena ekarri dion Anttoniok, burua argi dauka oraindik.

**• Zure gazte denboran edo orain bizi da hobeki jendea?**

Horretan ez dago dudarik. Opila jan eta erdi larrugorritan ibiltzen zen jendea orduan. Izan ere, ez baitzen dirurik, irabazbiderik

ez zenez. Oihanera alde batera eta bertzera ibiltzen nintzen, Irati, Belate ..., 17 urtetan hasita. Hala ere, ez nintzen joaten nahi hainbat. Eta lau pezetako soldata eskuratzeko.

**• Ehizan ibiltzen zinen?**

Usa ehizan bakarrik. Usa denboran irabazi nituen nik soldata haundienetako batzuk. Subastarik ez zen egiten, zozketa baizik, orain ttoritoila ehizarako bezala. Kanpoan bizi zirenek zail zuten zozketan parte hartzeko tenorez etortzea, eta haien orde txanda hartzeagatik 10 pezeta ordaintzen zidaten. Hori bai, afaldu, berehala joan eta gaua eman behar genuen Usategietan.

**• Ez zintuzten Afrikako gerrara eramán?**

Ez, libratu nintzen. Iruñean egin nituen soldaduxkako hiru urte luze, inguruko lagun baztandar eta etxalartarren artean. Han ere ezagutu nuen eskasia.



**Ez duzu Tomas Arribillagak harrapatutako onddo hori bezalako aunitzik ikusi seguraski: 1.150 gramoko pisua zuen**

**PELLO ETA ALBERTO**

Larraburuan sukaldaritzatik ari diren 16ez gain, eskulanetan 22k parte hartzen du, Zelaiko Mari Puyrekin. Eta, hirugarren urtez, arbola zaintzen ikasteko 17 lagun bildu dira.

**Lapurrak...**

ibili dira urrian, bi ostatutan. Herri ttikienetan ere gero eta gehiago sumatzen ditugu horrelakoak.

**Igerilekuen...**

emaitzak onak izan

dira, gastuak baino haundiagoak izan baitira diru sarrerak. Soldata, argi, telefono eta eguneroko gastuak, 600.000 pzta denetara, gainditu egin dira igerilekuetan bildu den sosalaz.

Ongi pasa ferietan

LORA DENDA  
**TXIRULA**  
Bitria LESAKA  
627542  
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**OKANE**  
HARATEGIA • URDAITEGIA  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

**BEKO ERROIA**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

  
**HERRIKO OSTATUA ETXALAR**  
**JATETXEA**  
© 635290 • ETXALAR

**ALBAR TETXEA**  
**JATETXEA**  
HARAGI ETA ARRINETAN  
ESPEZIALIZATUA  
Erreserbak egiteko deitu 627637 Ora  
Antoiu 26 • **LESAKA**



...igantzi...

# Ezin hobekiago atera ziren aurtengo Kultur Egunetako ekitaldiak

Eguraldia lagun izan genuen hasi eta akautu arte

## OSKAR TXOPERENA

Anje Duhalde eta Enrike Zelaia izan ziren dudarik gabe aurtengo Kultur Egunetako izarrak. Halere, pareko harrera eman zitzaizen bertze gaineko ekitaldi gehienei, jendearen partehartzea haundia izan baitzen. Ezin ukatu eguraldiak aunitz lagundu zuela horretarako, ekitaldi gehienak kanpoan egitekoak ziren eta (Arkaitz taldearen dantzak, tresna zaharren erakusketa, haurrentzako tailerra...). Gaztain eta sagardoz lagundutako Manolo eta Estitxuren bertso saioak berriz, jendez gainezka paratu zuen Biltoki. Egun hauei gehiago ezin eskatu.



Anje Duhalde, Enrike Zelaia eta jendearen partehartzea aipagarri

Argazkiak: OSKAR

## ttipi-flash

### Gimnasia

Udazkenero bezala hasi dira dagoeneko Gimnasia klaseak. Adinekoek, asteartero izaten dute hezurak dardaritzeko modua eta gaztegoek berriz, astean bitan, astelehen eta asteazkenetan. Oraindik baduzue ohizko lekuetan izena emateko aukera.

### Udal bulegoa

Orain arte larunbatetan goizez eta arratsaldez irekita baldin bazegoen udal bulegoa, hemendik aitzinera, goizez bakarrik irekiko da. 9etatik letara.

**SASKA**  
**OSTATUA**  
LESAKA

**ZALAIN**  
J A T E T X E A  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
Zalain Auzoa  
© 63 09 67  
BERA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**GOZOTEGI - JARONE**  
Itzea 3 • 630786 • BERA

**HARITZPE**  
J A T E T X E A  
**KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK**  
*Sukaldaritzarik hobereana xokorik politenean*  
Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038  
**• ETXALAR (NAFARROA) •**

*Gizonezkoen Moda*  
**GURY**  
Miguel Angel Cuartango Gury  
Mendelu 53 • ☎ (943) 64 18 41 • 20280 HONDARRIBIA





# Ehiztariak urteroko bazkaria egin zuten Bagatxarreko txabolan

Aurtengo ehiza denboraldi ona ongi akautzeko, Xebastian Lizaso eta Millan Telleria bertsolariak izan ziren bertan

GARBIÑE ETA ELIXABET

Urriaren 30ean, Bagatxarreko txabolan ehiztarien bazkaria izandu zen. Bertara Sebastian Lizaso eta Millan Telleria bertsolariak, bertsotan aritze-  
ra etorri ziren. Guztira hogeitamaren bat lagun elkartu ziren. Eguna besta giroan pasatu zuten.

Orokorrean denboraldi ona izan dute ehizturiak. Zenbait ehizturik egun batean hogeita gehiago uso botata bueltatu dira etxera, hori bai gehienak urriro bukaeran.

## Bi langile

Udala eta INEMen arteko akordioari esker bi hilabeterako Jesus Mari Goizueta eta Roman Iparragirre kon-



Bagatxarreko txabolako bazkarian ederki pasatu zuten ehiztariak eta bertsolariak

tratatu ditu herriko lanak egiteko.

## Mediku berria

Orain daukagun medikua, Aurora Garces ikastaro bat egitera

joanen da eta bere orde-  
dez, bertze mediku bat etorriko da. Udalak, mediku euskalduna izateko ahaleginak egitea eskatu dio Osasunbideari.

## Larre erretzeak

Larrea erretzeko urtero bezala baimena eskatu behar da. Hori egiteko epea azaroaren 30ean akautuko da.

## Dirulaguntza Gurasoei

38.000 pezeta jasoko ditu Arantzako eskolako Guraso Elkarteak Nafarroako Gobernutik.

## ttipi-ttapa

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle



## ALBERGIA JATETXEA

634179  
ARANTZA

## AYLA

### ARGAZKI DENDA

### Bixente Taberna

- EZKONTZA ERREPORTAIK Argazkia eta Bideoa
- Legia 4 • 630597 BERA



## INAKI ITURRIA

### INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

### Instalazio zaharren berritzeak

### PORTERO AUTOMATIKOAK

## Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12  
635028 - 635246  
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.  
943) 61 24 24  
20300 IRUN

## Gida 95



## ttipi-ttapa

## Gida Komertziala

Informazioa:  
631188





# III. Trikitilari Eguna, larunbat honetan ospatuko da

Elor-Txuri jatetxeko bazkariaren ondotik, 'Imuntzo eta Beloki' trikitilariak arituko dira

JOSUNE ETA IXABEL

Larunbat honetan, azaroak 20, ospatuko da Trikitilarien Eguna hirugarren edizioa. Trikitilariak letan gelditu dira frontoian eta hortik aterita, kalejira bat eginen dute herrian barna trikitixa jotzen. Bazkaria, 2etan izanen dute Elor-Txuri jatetxean. Haurrek 2.000 pezeta ordaindu beharko dute eta nagusiek berriz, 2.500. Apuntatzeko 451596 telefonora deitu.

Bazkalondoa alaitzeko, 'Imuntzo eta Beloki' trikitilariak arituko dira.

Josune eta Ainhoa trikitixa eskolan 60 ikasle daude, Sunbilla, Ituren, Elizondo eta Donamarian.



Orokorrean, ehiza denboraldia txarra izan bada ere, batzuk ez dira lotan ibili Arg.: Ixabel

## Ehiza denboraldi motela aurtengoa

Aurtengo urria nahiko txarra joan denez, ehiztariak arras haserretuak daude eta gehienek erraten dutenez, joan den urtean baino

gutiago harrapatu dute. Dena den, haserraldiak segituan pasatzen zaizkie, hau da, etxolan sartu eta han dagoen giroa ikusi bezain

laister. Udaberrian, basoiloak eta konejoak askatuko dituzte.

Usozaleei denboranda akitzean mendiak garbitzea eskatu zaie.

## ttipi-flash

### ❖ Futura 94

Azaroaren 7an, arratsaldeko 4etan egin zen Futura-94ko bilera. Bertan, ekainan egindako ikastaroan parte hartu zuten emakume gehienek errepikatuz zuten. Aste batez izanen da kurtsillo hau eta emakumeentzako gai interesgarriak tratatuko ditu.

### ❖ Bustiz ostatuko mus txapelketa

Igande honetan, azaroak 13, Bustitz ostatuko mus txapelketari hasiera eman zaio. Partidak igandero jokatuko dira arratsaldeko 5etan.



IRUNGO errepidea - 31780 BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Mazizoa  
Zuhaitz antzekoa - Txupetatu

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



## SANTAMARIA

### Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

## ttipi-ttapa

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



## MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN

zure esku gaituzu.

ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA

Tfnoa: 637404



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO  
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure  
karreteak ORDU BATEZ ERREBELATZEN  
ditugu "FUJI" kalitatearekin



**Doneztebe**

# Babeseko etxebizitza edo pisu tutelatua eginen da


Jubilatu eta pentsionistendako etxebizitza honek berrogeitabi pertsonendako lekua izanen du, hiru planta edo solairutan banatua

TXEMA ETA KARMELO

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateak izandako azken bileran eta aspaldi xamar burutuan zegoen babeseko pisuak eginen dira Donezteben Elizagibela karrikan, hau da, eliza atzekaldean eta erreka bertze aldean.

Jubilatu eta pentsionistendako etxebizitza honek hogaitabat apartamentu bikoitz izanen ditu, 42 pertsonendako lekua alegia, 3 planta edo solairutan. Planta bakoitzean, laguntza gela bat egonen da eta behelaldean berriz, jangela, garbitokia, egongela eta bileretarako tokiaz hornitua egonen da. Guztira 1.925 metro karratuko azalera eraikiko da.

Etxebizitza hau egiteko proiektua eta lanen zuzentzeak 11,7 milioi pezetako kostoa izanen du eta lanen esleitzea edo adjudikazioa egiteko epea ide-



Jubilatu eta pentsionistek, pisu tutelatu edo babestu batean bizitzeko aukera izanen dute laister

Argazkia: Artixboa

kia da dagoeneko. 120.454.318 pezetakoa da gehieneko kostoa. Kopuru honen %21a Nafarroako Gobernuo Etxebizitza Sailak ordainduko du. Gainerako kopurua hogeitaz eta %4eko interesekin ordaindu beharko du Mankomunitateak. Etxebizitza honekin

batera, Intzakardi parkea elkartuko duen egurrezko zubi bat ere eginen da.

Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, 1991ean Malerrekako zentsoa osatzen zuten 5.163 pertsonetatik 911 hirutan hogeitalau urtetik gorakoak ziren (%17,6).

Portzentai hau oraindik haundiagoa da Labaien (%25), Zubietan (%24,3), Eratsunen (%20) edo Sunbillan (%19,9). Aipagarria da eraberean, hirugarren adineko pertsonahuen artean erdia baino gehiago hirutan hogeitamabortz urtetik gorakoak zirela.

*ttipi-flash*

## Jubilatuen Ostatua

Maddi Andueza eta Itziar Azpiroz bikoteak hartu du. Lehen eramaten zutenek utzi egin dute, bertako funtzionamendua dela eta jubilatuekin hainbat gorabehera izan ondotik.

## Zineko kartelak

erdara hutsean ateratzen direla eta Langarra taldeak euskaraz ateratzea eskatu dio udalari.

## Feriak ortziralean

Ortziral honetan ospatuko dira Doneztebeko feriak. Aurtengo berexitasunen artean, Langarra taldeak antolatutako euskal txokoa eta arratsaldean, aizkolari gipuzkoar eta nafarren artean jokatu den aizkol apostua daude.



## TELLETXEA MOBLEAK

### Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

*Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.  
1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan*

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**





# Gizarte laguntzailearen lanpostua fijo izanen da hemendik aitzinera

Lehen kontratu bidez zegoen Begoña Alberrok eskuratu du lanpostua azterketak egin ondotik

**TXEMA ALDABE**

Malerrekako asistente sozial edo gizarte laguntzaile lanpostua fijo izateko frogak egin dira eta lehen kontratu bidez zegoenak, Begoña Alberrok alegia, eskuratu du lanpostu hori. Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatearen gain dagoen lanpostu hau eskuratzeko hogeiren bat lagun apuntatu baziren ere, azterketara lau bertzerik ez ziren agertu.

Bertzalde, gizarte gaiekin segituz, ezkongabeko bikoteen erregistrozibilaegiteko asmoa azaldu du Zubietako udalak.



Begoña Alberrok (eskuinean) lortu du lanpostua

Arg.: Artxiboa

## Oihan aprobetxamendurako adjudikazioak Zubietan

Aieleta eta Gorospillaga inguruetan oihan aprobetxamendurako subasta eginzen

Zubietako udalan. Lanak, Lesakako Etxebeste anaiek (2 milioi terdi pezetako

eskeintza) eta Oiarzungo Elizegik (1.800.000 pezeta) egingen dituzte.

# Doneztebeko TB errepetidorerako bidea 50 milioitik goiti gostako da

Elgorriatik ateratzen da proiektuan dagoen bidea, ingurugiroari kalte guttien egiten dion aukera baita

**TTIPI-TTAPA**

50,1 milioi pezetako aurrekontua du Doneztebeko telebista errepetidorerako bidea egiteak, Nafarroako Gobernuko Herrilan. Garraio eta Komunikabideetako sailak onartutako proiektuaren arabera.

3.475 metro izanen dituen bide hau Elgorriatik aterako da eta Bostorratz erreka-ondotik igoko da errepetidoreraino. Banaz



bertze, %10,2ko maldan izanen da.

Bertze aukera bat Sunbillatik Gorrestore-

txo sakanaren gainaldetik doan bidea hobetzea zen, baina alderdi honetatik eragin gehiago du eguraldi txarrak Elgorriaga aldetik baino. Doneztebe bertatik ere, onartutako proiektuak baino kilometro erdi guttiago izanen lukeen bidea egiten ahal zen, baina ingurugiro aldetik kalte nabarmenagoak izanen ziren eta kilometro bakoitzeko kostoa aunitzez haundiagoa.

*ttipi-flash*

**Donamaria**

Azkarraga eta Artze auzoetako argiteria hobetzeko 6,3 milioi pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Lanaren aurrekontua 8,7 milioitakoa da eta hiru hilabete-tan akitu beharko dira. Argiteria publiko Uxarreko auzotik Azkarragara bitarte eta monjen konbentutik Artze-ko sarreraraino paratuko da.

**Narbarte**

Sanz eta Martiñena etxeetarako bideak pabimentatuko dira. Sanz etxerako 120 metro karratuak Baztango harriarekin eginen dira. Martiñena etxerako 625 metro karratuak ormigoiez estaliko dira. Aurrekontua 4 milioi terdikoa da eta Nafarroako Gobernuak 2,9 milioi ordainduko ditu.

**Oitz**

Azaroaren 19an bertso afaria izanen da Oitzko elkartearen. Bertan, Amuriza eta Sorozabal arituko dira.

**Ituren**

'Iruña Pequeño Teatro' taldea arituzen urriaren 30ean Aurtizko frontoian Udazkeneko Bizarren barnean.





## Presoen eskubideen aldeko bi mozio eztabaidatu ziren azken plenoan

Presoak inguruko gartzeletara ekartzeko eta beraien egoera kaleratzeko eskubidea onartu zitzairen

IBAN ISASI

“Euskal presoak eta beren senitartekoeak jasaten ari diren giza eskubide eta eskubide juridikoen bortxaketa dela eta” udalari hurrengo puntuak onartzea eskatzen zitzaion: gaixotasun sendaezina dituzten presoak, legediaren arabera, kanpoan libre egon beharko lukete. Bertzalde, kondenaren hiru laurdenak eginak besteak dituztenak askatzea eskatzen zen.

EAK bertze mozio bat ateri zuen, bi punturekin: Askatasunik



Artxiboa

gabe dauden pertsona guztiak eskubidea dute beraien egoera kalera-

tzeko bere bozemaileen bidez eta presoak inguruko kartzeletara

ekartzea.

EAK, azken hau bakarrik onartu zuen

### Markaketak mendieta

Hauek dira azken plenoan egindako markaketa eskaerak. Makilipurdiko pagoak, 12 areatako garbiketa. Urtegian eta Soranan, 6 area alertze garbitzeko. Elkarrikoa inguruan, pinu laurizioa eta haritz amerikanoaren 8 hektarea garbitzeko. Lanok Nafarroako Gobernuaren inbertsioetan daude.

eta HBk eta TBk bi mozioei baiezkota eman zieten.



## Bertso afari arrakastatsua Amuriza eta Sarasuarekin

Bertzalde, herriko ostatua Ana eta Mari Joxe Zozia ahizpek eramanen dute

TXEMA URROTZ

Berrogeitamar lagun inguru bildu ziren urriaren 29an bertso afariaren inguruan frontoian. Hasieran jende gutti apuntatua baldin bazen ere, azkenean orduan saila animatu zen. Denak gustora egon ziren Amuriza eta Sarasuaren bertso ederekin eta tartean giroa alaitzen zuten Xabier eta Jon trikilariekin.

### Herriko Ostatua

Azaroaren hasieran egin zen herriko ostatua hartzeko subasta.



Bertara aurkeztu ziren guztiak herritarrak izan ziren eta gehien eskei-

ni zutenak, Ana eta Mari Joxe Zozia ahizpak izan ziren. Abenduaren

hasieratik ostatua eramanen duten nagusi berriak izanen dira.



### Patxi Urrotz intsumisioa 3. graduan

Patxi Urrotz, herriko gazte intsumisioa hirugarren gradu penitentiarioan dago Iruñeko gartzelean. Urriaren 13an sartu zuten eta lehen-dabiziko astean ezin izan zuen ateri.

Orain berriz, ortziral eta larunbatean ezik egunero joaten da kartzelara lo egitera bakarrik.



**Goizueta**

# Euskara merkatal mundura eramán nahi du udalak

Hogei orduko ikastaroa eskeiniko zaie langileei beraien euskara lantzeko

ESTEBAN AROZENA

'Euskara merkatal mundura' izeneko egitasmo edo programa jarri du martxan Goizuetako udalaren euskarazerbitzuak, herriko denda, taberna eta beste establezimenduetan euskararen erabilpena bultzatu asmoz.

Programaren barruan, apirilaren inkestak baten bisita jaso zuten merkatariek eta establezimendu eta langileen hizkuntz egoerari buruzko datuak bildu ziren. Laister, egitasmo honi dagokion hurrengo pausoa emango da eta euskararen erabilpena indartzeko eskaintza zehatzak egingo zaizkie merkatariei. Esate baterako, faktu-



Dantzari sekzioa ere omendu zuen Umore Ona elkarteak

Xabier Mikel

rak, errezihoak, prezioak, etabar euskaratzeko itzulpen zerbitzua udalak emango die. Horretaz gain, kanpoko errotuloak euskaratu behar balira gastuaren

ehuneko 50 ordainduko zaie 30.000 pezetako mugarekin.

Merkataritzako euskara lantzeko aukera ere izango dute langileek. Horretarako 20

orduko ikastaro bat eskeiniko zaie, eta bertan, komertzioetan gehien erabiltzen diren hitz, esaldi eta idazkiak euskaraz idazten ikasi izango dute.

**Areso**

# Irtenbide bat eman zaio neguko uraldeei

Eskola ondoan erreka dragatu dute horretarako

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Negua ailegatu baino lehen irtenbide bat emango zaio uraldeak egiten dituzten kalteei. Lehen, eskolako sotoan ura sartzen zen. Orain, dragadoa egin dute eskola ondoan, jardinetik Otsaida azpiko zubiraino, errekaaren nibela jeitsi eta garbituz. Orain erreka bere bidea hartzen du inongo oztoporik gabe. Zabalera haundia gelditu da erre-



Uraldeei irtenbide bat emateko egindako obren ondorioz amuarrain asko agertu dira hilik

Arg.: Juana Mari

kan eta obra hauek ongi bukatzeko harrizko parreta berri bat egiten ari

dira eskola ondotik Zubiri etxe pareraino.

Hala ere, aipatu be-

har obra hauen ondorioz, amuarrain asko hilda azaldu direla.

*ttipi-flash*

- ❖ **Umore Onak**  
bere sekzioei eskeiniko eguna ospatu zuen hilaren 5ean. Dantzari, futbolari, mendizale, trikitilari, herri kirolari eta pilotariak ongi me-rezitako errekonozimendua jaso zuten.
- ❖ **Egin mus txapelketan**  
13 bikotek parte hartu dute aurten, iazko kopurua ia bikoiztuz. Ximon Apeztexea-J.A. Apeztexea eta Mikel Elizegi-Antxon Rodriguez-ek osatutako bikotekak izango dira Goizuetako ordezkariak hurrengo igandean jokatu den herrialdeko finalean.
- ❖ **Mikel Markez**  
abeslaria gure artean izango dugu hilaren 26an, 10,30etatik aurrera, Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuan.

*ttipi-flash*

- ❖ **Eskolaz kanpoko**  
aktibitateetan hasi dira umeak. Dantza eta pilotaz gain, sokatira ere izango dute aurten neska-mutiek. Bi egunez entrenatzen dute plazako karrapean, Jexus eta Joxe Martinekin.
- ❖ **Bertso afaria**  
Euskara zerbitzuak kultur ekintza bat antolatu du. Azaroaren 26an, Larrea elkartearen bertso afaria izanen da Lizaso eta Murua-ekin.



# ELAk 9 delegatu eta LABek 8, Sarrioko hauteskunde sindikaletan

Aurtengoan, orain dela lau urte baino lau delegatu gutxiago aukeratzen ziren, langile kopuruaren murrizketa dela eta

JOSEBA AZPIROZ

Azaroaren 9an burutu ziren 'Sarriopapel y Celulosa, S.A.' enpresako hauteskunde sindikalak. ELAk 9 delegatu eskuratu zituen, 196 botu eskulan langileen artean eta 74 tekniko eta administratiboen artean. LABek 8 delegatu izanen ditu, eskulangileen artean 186 botu eta teknikoen artean 49 lortuz. Duela lau urte, ELAk 11 delegatu zituen eta LABek 10. Orain, langile kopurua murriztu dela eta lau delegatu gutxiago izango dira Sarrioren.



1.850 gramu pisatu zuen Joaquin Gastesik urriaren 27an Aresoko Merku mendian bildu zuen ontto honek  
Argazkia: JOSEBA

*ttipi-flash*

- ❖ **Txakun taldea**  
Euskara Zerbitzuak Iparaldeko Txakun taldearen kontzertua antolatu du hilaren 25erako, gaueko 10etan. Talde honen, euskal tresna ezberdinez baliatuz musika emanaldia eskeiniko digu zinemari.
- ❖ **Eskolako**  
Guraso elkarteak 70.000 pezetako dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernutik.

## 4.863 sarrera saldu ziren iazko zine denboraldiko 53 saioetan

Aurtengo denboraldia hasi berria denean, iazko denboraldiaren balantzea aurkeztu du zineko komisiok.

Joan den urtean 4.863 saldu ziren, horietatik 3.425 larrienak eta 1.438 gazteenak. Guztira 25 pelikula

eman ziren, 53 saio ezberdinetan.

Diru sarrerei dago kienez, milioi bat terdikerrekaudazioa lortu zen eta diru irteerak berriz, 1.788.491 pezetakoak. Berez, 283.720 pezetako diru galera izan zuten, bainan halere,

Nafarroako Gobernuak 476.222 pezetako dirulaguntza eman duela kontutan hartuz, ia 200.000 pezetako superabitarekin bukatu zen denboraldia.

Azaroaren 18 eta 20an 'Lobo' pelikula emanendute. 20an, 'El nuevo Karate Kid'.

## Elkarri-ren pake topaketak

Elkarri giza mugimenduak Leitza duen taldea jotake ari da "Pake topaketa partehartzailearen" barrenean Herrigintza proposamena lantzen. Euskalerriko gatazkari buruz eritziak jasotzen ari dira eta honekin lotuta, urriaren 23an mahainguru interesgarri bat burutu zen: zozke-

taz aukeratutako 9 leitarrek parte hartu zuten. Harrera onaz aparte, elkarrizketa giroa, lasaitasuna eta hitzegiteko gogoia nagusitu ziren. Partehartzaileen aldetik "zerbait egiteko beharra" agerian gelditu zen. Eguberri bitartean mahainguru gehiago, bideo emanaldiak... egingen dituzte.

**Gida 95**



**ttipi-ttapa**

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO eta LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala.
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrikoa eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa desberdinekin.

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

## IBARROLA

Haurrendako Arropa  
Mertzeria

Parrokia 6  
Tfnoa: 450463  
**DONEZTEBE**



**Baztan**

# 'Folk Ametsetan' zikloa martxan da Kasinoan

Hurrengo igandetan, Ganbara eta Perlinpinpin Folk taldeak arituko dira

**JOSEBA IGARABIDE**

Baztango udaleko kultur sailak antolatutako 'Folk ametsetan' musika zikloa martxan da dagoeneko Elizondoko Kasinoan.

Joan den igandean Alamar taldea aritu zen eta hurrengo bi igandetan ere bi folk talde bikain izanen dira: azaroaren 20an Ganbara taldea eta 27an Perlinpinpin Folk taldea. Kontzertu guztiak, arratseko 8etan izanen dira.

## Bertso afaria

Abenduaren 2an bertso afaria izanen da Antxitonea trinketean, ikastolaren 25. urteurrena ospatuz. Bittor Elizagoien, Peñagarikano, Egaña, Mari-beltaeta Biotz Unanua arituko dira. Txartelak hainbat ostatueta salgai daude.

## Iruritako II. pala motza txapelketa

Iruritan, II. Arana-



Aurtengo ferietan, zenbait tratu egiteko aukera ez dute galdu nekazariak. Zerbait azpimarratzekotan, aurtengoan asto aunitz izan direla ferian.

Arg.: Karmele

bia pala motza txapelketa antolatu dute aurtenera joan den urteko arrakasta ikusirik. Azaroaren 12an hasten zen eta Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hamabi bikote parte hartzen ari dira. Joko-garbi txapelketaren finala ere igande honetan jokatu dute.

## Azpilkuetako Marcelino Kortea, istripuz hila Urkiaga inguruan

Marcelino Kortea Zubietta, 45 urteko azpilkuetarra hilik agertu zen azaroaren 3an, Eugi eta Urepel artean dagoen Urkiagako gainaren inguruan.

Marcelino ehizian egunpasa egitera ateriatzen Kintora, bainan ez

zen lagunekin elkartu. Bihamonean, bere gorpua amildegi batean aurkitu zuten. Kotxearekin 50 metroko eroria egin eta hil zen Marcelino. Azpilkuetako estankoarean nagusia zen eta azienta tratante bezala ere lan egiten zuen.

*ttipi-flash*

## Guraso elkarteei dirulaguntza

eman die Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultur sailak. Elizondoko eskolako Guraso elkarteak 71.000 pezetara jasoko ditu, Irurritakoak 39.000, Oronozkoak 26.000 eta Lekarozko institutuak 72.000 pezetara.

## 880.000

pezetako dirulaguntza jaso du udalak Nafarroako Gobernuko Barne Sailetik polizia municipalari ibilgailu bat erosi ahal izateko.

## Nafarroako

Egun alternatiboa Elizondon egiteko deialdia luzatu du Herri Batasunak. Abenduaren 3an izanen litzateke, San Francisco egunean.

## Intsumiso

presoekin elkartzasuna adierazteko itxi-aldi batekin joan den larunbat eta igandean Baztandarren Biltzarren bulegoetan. Gogoratu behar da, Iruñeko gartzelan dauden intsumisoek gose greba egin dutela.

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**TELAK:**

Forro Polarrak, abrigoak, gonak...

**ESKULANETARAKO MATERIALA:**

Klase guztiko materialak

**MODAKO ARROPA:**

Konjuntoak, jertseak...



**Pierresenea**  
**OSTATU - JATETXEA**

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

**SAS KAITZ**  
fontaneria  
calefacción

Empresa colaboradora de



**Era guztietako instalazioak:**  
**Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO



# Oronozko Babes Ofizialako hamabi etxebizitzak adjudikatu dituzte

Guztira hogeitabortz lagun ziren etxebizitza hauetako bat eskuratzeko eskaria egina zutenak

JOSEBA IGARABIDE

Oronozko babes ofizialeko hamabi etxebizitzak adjudikatu ziren Baztango udaleko azken plenoan, EA, HB eta PSOEn aldeko botoekin eta UBren abstentzioarekin.

Guztira hogeitabortz lagunek nahi zuten etxebizitza hauetako bat eskuratu. Horietatik bortzek ez zuten eskatutako baldintzak betetzen eta gainerako zortziak erreserban gelditu dira.

Bertzalde, Oronoz-Mugairikobizilagunak kontent daude. San Martin eskolaren esku dagoen frontoia Oronozko herriaren eskuetara pasatuko dela dirudi. Gestioak aintzineratuak daude.



Aitzinako argazkiak berreskuratzeko II. kanpaina bildutako argazkien erakusketa zabalik da azaroaren 14etik 30era, arratseko 7etatik 9etara, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean

## Baztango mapa eskolarrari buruzko eztabaida azken udalbatzarrean

Union Baztanesak egindako galdera bati erantzunez, erreformak Baztanen izanen duen eraginaz aritu zen Martin Garde, Hezkuntza zinegotzia. Bere erranetan, Nafarroako Go-

bernuaren nahia, 12 urtetik goitikoak Lekarozen biltzea izanen zen.

Honen ondorioz, zenbait bilera egin izan dira Elizondoko konzentrazioa, ikastola eta

herrietako eskolen artean. Zenbaitzuen ustez, kaltegarria izaten ahal da 12 eta 18 urteko neska-mutikoak batera biltzea Lekarozen. Bertze batzuen ustez, mesedegarria da.

ttipi-flash

- ❖ **Erratzuko okindegia**  
lekuz aldatu behar dute eta Ikatzateko industrigunean eginen dute. Horretarako baimena eman du udalak.
- ❖ **Berroetako**  
alkateari Kaolin pistaren saneamendua hobetzeko 78 metro tubo beltza emanen zaio. Lanak auzolanean eginen dira.
- ❖ **Lekarozko**  
elizako kanpidoerreko erlojua jartzeko 747.400 pezetako dirulaguntza eman du udalak, bertako alkateak horrela eskatu ondotik.
- ❖ **Arizkungo**  
Ximentonea eta Laondoko pistendako bina zahorra kamioi ematea erabaki zuen udalak.
- ❖ **Euskaldunon Egunkarian**  
iragarkia agertuko du udalak, bere 4. urteurrenean.

**KIWI BAZTAN, S. A.**

**FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENEKO SALMENTA**

MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea

**31795 LEKAROTZ**

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

ERRATZU

OKINDEGIA

---

zure eguneroko ogia

---

453168 - ERRATZU

ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO  
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE  
Tel. Fax. 45 08 25

- ✿ Jardinak apaintzeko landareak
- ✿ Barneko planta extranjerotik ekarria
- ✿ Marokkoko artisau lanak
- ✿ Koroaiak
- ✿ Ezkontzarako apaingarriak

**MERKEALDIAK jardinetako osagarrietan**

Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**

LOREDENDA • GARDEN CENTER



Sara

# Sarako plaza, frantses telebistaren esku egon zen bi egunez

'Noël et après' (Eguberri eta Gero) izeneko filmerako irudiak hartzen izan ziren azilaren 3 eta 4ean

MIXEL ETA JACQUELINE

'Noël et après' (Eguberri eta gero), bi egunez azilaren 3 eta 4ean gure plaza frantses telebistaren eskutan zegoen eta horrek nardatze asko ekarri ditu herritarrei baita saltzaileei ere, aparkaleku, Herriko Etxe, postetxe, ostatu eta bertze trabatuz. Behar bada, batzueri gauza ona iruditu zaie bainan gure buruari galdegin dezakegu zer ekarriko dion gure herriari gertakari hunek. Batzuek erranen dute ospea, fama... Oraino fama ez al da aski ezagutua! Jakin behar dugu onhartzten gure herriaren abantailetan diren ekin-tzak ala nola lanbide berri batzuen eskaintza bainan holako telefilma batek ez du gure begietan diru xahutzea bertzerik erakusten eta hori damugarri da. Egiatzko eztabaida baten mamia bada hor!



Bainan horretaz gain erran dezagun "Gau-mont Television" ari dela filma horren muntatzen eta hau lehen frantses gatean pasatzekoa dela 1995ko martxo-apiril irian. Gaia aipatu daukute eta diote hortan kondatuko dela Bosniako emazte batetahunen alabanola hunat ihes etorri diren eta euskal familia batek aterbetzen dituen bere etxean Eguberri kari...

Jendea erizaindegiaren aintzinean beha egoki

## Hendaiako 'Hopital Marin' eritexeak Senegalen burutu ekintzen berri

Joan den urriaren 2tik 10erat Senegal-eko Diakhao eskualdean ibili ziren Hendaiako eritexeko hogoita hamalau erizain, sendagile eta bertze.

Erran gabe doa, hauen helburua lortua izan dela Afrikarat heltzean eta, gehiagoda, operazio hunek hemen bertan ere nahiko harrera ona ukan

duela. Karia hortarat azpimarra dezagun, Hendaiako Marin hoptaleko hogoita hamalau sendagile, erizain eta laguntzailetaz gain, 13 metra ku-

bika sendagai, jantzi eta eskolako puska eremanak izan direla Senegal alderat.

Bainan hori etzen gertatuko aintz jendek ez bazuen parte hartu eta TTIPI-TTAPAREN bidez, Zumeaga andereak Garat eta Lafitte medikuak, Mirentxu Garat botikaria, San Josepe eta gainerako eskolak eta saratar aunitz beren laguntzarenatik bihotzez eskertu nahi lituzke.

Jakin dugunez, ongi etorri kartsu paregabe bat egin diote eta ahoan bilorik gabe erran dezakegu behar-rean bizi direnek, jendetasan haundia badutela.

Agian hurrengo urtean bertze horrenbertze edo gehiago eginen dutelakoan TTIPI-TTAPA hunen bitartez eskertzen ditugu operazio hunen antolatzaile, laguntzaile eta partaide guztiak.



## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



ARMUA  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km

Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

ARLA

ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak •  
freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO



## Hogeitabi emakume ari dira jostungintza ikastaroan

Bertzalde, eskolako neska-mutikoak Uztaritzeko igerilekurat joaten dira igerian ikasterat

ALIZIA OLAIZOLA

EPA ikastaroetako 'corte y confección' edo jostungintza klaseak urriaren 18an hasi ziren. Arduraduna Berako Andoni Errandonea da eta irakaslea berriz, Urdazubiko Anastasi Bidart.

Hogeitabi emakume dira parte hartzen dutenak. Denak ez dira herrikoak, batzuk Zugarramurdikoak eta bertze batzuk Iparraldekoak dira. Astearte eta ortzegun arratsaldean udaletxeko sala batean izaten dira klaseak.



Urriaren 18an hasi zen jostungintza ikastaroa. Hogeitabi emakumek eman durtan izena

### Haurrak Uztaritzeko igerilekuan

Ikastaroekin segituz, eskolako haurrek ere hasiak dira azken urteotan bezala. Uztaritzeko igerilekurat joaten.

Ortzegun goizean izaten dituzte igeriketa klaseak. Horrela, igeriketa hobetzeko eta orain hasten direnak, berriz, ikasteko. Hiru urtekoak ere hasiak dira joaten.


## Alfredo Jurio herritarra ere intsumitua egin da

Abuztuaren 16an Mungiako kuartelean sartzea tokatzen zitzaion, baina 'Kakitza' talderat jo zuen

KORO ETA MARGARI

Duela urte pare bat German Arburua izan ginuen herriko lehenbiziko intsumitua, orain Alfredo Jurio ere berekin batera doaie bide latz huntatik.

Gan den abuztuaren 16an Mungiako kuartelean sartzea tokatzen zitzaion, baina harat gan beharrean 'Kakitza' talde antimilitaristat jo zuen, orain izanen dituen epaiketa eta gainerako tramiteetarako laguntza bilatuz. Suerte ona izatea esperadugu.



Alfredok duela pare bat urte German Arburuak hartutako bideari segitu dio

### Kisu-labe ostatua etsi da

Gan den hilabete-tik hunat ostatu bat guttiago dugu herrian, 'Kisu-labe' izenekoa etsi baita.

Ostatuaren ordez eta toki bera erabiliz, elkarte gastronomiko bat sortu da. Elkar-teak 'Kisu-labe' izena mantenduko du eta hogeita hiru bazkidez osatua da, momentuz. Bazkari-afari ederrak egiteko aukera izanen da.



**EZKONTZAK**

**Fco. Javier Azkarate Morales** eta **Nuria Sebastian Minguez**, Elizondo eta Berakoa, urriaren 15ean.  
**Felix Etxeberria Agesta** eta **Maite Osakar Agerrebere**, Sunbilla eta Ziggakoa, urriaren 22an.  
**Martin Alduntzin Zestau** eta **Rosa Maria Ibañez Zabalegi**, Leitza eta Berrobikoa, urriaren 29an.  
**Jose Ramon Huizi Mitxelena** eta **M<sup>a</sup> Milagros Loiarde Eskudero**, Goizuetakoak, urriaren 29an.  
**Jose Antonio Larroque Anzizar** eta **Yolanda Alzuarde Inda**, Doneztebe eta Almandozkoa, urriaren 8an.  
**Jorge M<sup>a</sup> Oteiza Ugarte** eta **M<sup>a</sup> Pilar Migeltorena Etxenike**, Oieregi eta Berroetakoa, urriaren 15ean.  
**Jose M<sup>a</sup> Barrenetxe Lertxundi** eta **M<sup>a</sup> Carmen Miñana Fernandez**, Oronoz eta Elizondokoa, urriaren 22an.  
**Jose Ignacio Maiora Garcia** eta **M<sup>a</sup> Esther Azkarraga Iribarren**, Irun eta Azpilkuetakoa, urriaren 29an.  
**Miguel Mari Jauregi Junatorena** eta **M<sup>a</sup> Jose Ibañez Txokarro**, Ezkurra eta Berbinzanakoa, azaroaren 5ean.  
**Jose Antonio Menta Soubelet** eta **Edurne Hernandez Fernandez**, Urdazubi eta Bilbokoa, azaroaren 12an.

**JAIOTZAK**

**Salvador Goikoetxea Andrade**, Leitzakoa, azaroaren 2an.  
**Iñaki Etxeberria Aranaz**, Goizuetakoa, urriaren 25ean.  
**Garazi Sanz Arretxea**, Doneztebekoa, urriaren 20an.  
**Alfonso Ariztegi Agerrebere**, Urrotzkoa, urriaren 24ean.  
**Markel Jorajuria Elizondo**, Arantzakoa, azaroaren 5ean.


**HERIOTZAK**

**Lorenza Billabona Arraras**, Leitzakoa, urriaren 27an, 80 urte.  
**Juan Perurena Zubiri**, Goizuetakoa, azaroaren 4ean, 85 urte.  
**Natividad Oteiza Oteiza**, NARBARTEKOA, urriaren 28an, 79 urte.  
**Antonio Elizegi Salaburu**, Lekarozkoa, urriaren 27an, 71 urte.  
**Encarnacion Ibiriku Monge**, Elizondon, azaroaren 2an, 86 urte.  
**Marcelino Korteza Zubieta**, Azpilkuetakoa, azaroaren 2an, 45 urte.  
**Carmen Garraus Mitxeo**, Doneztebekoa, urriaren 30ean, 92 urte.  
**Jesus Portugal Araneta**, Lesakan, urriaren 24an, 78 urte.

**40 ESTABLEZIMENDU  
ZURE ZERBITZURA**

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,  
 2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,  
 4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,  
 2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,  
 dekorazio denda bat, supermerkatu bat,  
 aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,  
 bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,  
 hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.  
 Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**





## BEHARREZKO TELEFONOAK



**SOS Nafarroa eta Urgentziak** ..... 088/061

**Osasun Zentruak**

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

**Nafarroako Ospitaleak**

Nafarroako ospitalea ..... 102100

SSko urgentzi zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

**Gipuzkoako Ospitaleak**

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitala ..... 460299

Erresidentzia ..... 453800

**Anbulatorioak**

Irun ..... 630264/621106

**Anbulantziak**

Oitz ..... 450242/450342

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

**FUNERARIA**

Doneztebe ..... 637404

Elizondo ..... 580924

Lesaka..... 637404

**Suhiltzaileak**

Oronotz-Mugaire ..... 592255

**Garraioak**

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarlan ..... 515018

**Aberiak:**

Iberduero ..... 450335/450336



## 1937ko kintoen bazkaria abenduaren 3an Mugairin

Azken hamar-hamabi urteotako ohiturari jarraituz, kinto bazkaria ospatuko dute aurtenera 1937an jaiotako gizon eta

emakumeek. Hasiera batean, azaroaren 26an egiteko asmoa bazuten ere, abenduaren 3ra gibelatu dute. Bazkaria Mugairiko

Urgain jatetxean izanen da eta Baztan-Bidasoa aldeko kinto guztiak gonbidatuak daude.

Urteotan arrakasta ezberdina izan du bazkari honek. Zerbaitetan ehundik goiti

bildu dira, baina iaz jende gutti animatu zen. Ea aurtengoan, argazkian haina biltzen diren, bederen.

Bazkaldu nahi dutenek, 592198 edo 637270 telefonoetara deitu lehenbaitlehen.

## Hainbat dirulaguntza lortu ahal izateko behar den informazioa ematen du 'Cederna-Garalur'ek

Norberaren etxea zaharberitzeko, edo lan enplegua sortzeko, edo industria, komertzioa, turismoa, nekazaritza eta bertze edozein sektoretan dauden dirulaguntza desberdinei buruz informazioa eskuratu nahian dabilen jendearentzat, 'Ce-

derna-Garalur' izeneko agentziak, informazio zerbitzua antolatua du zona mailan.

Elizondon, Balleko Etxean, astearte eta asteazkenetan 9etatik 2etara egoten da. **Urdazubin** ortzegunetan 9,30etatik 11,30etara eta **Zugarramurdi**

ortzegunetan 12etatik 2etara. Hiru herrietan Isabel Elizalde da arduraduna.

**Bortzirriak, Bertizarana** eta **Malerrakako** herrietarako, berriaz, Arantxa Arregi da arduraduna. **Donezben** astelehetik asteazkenera 9etatik 2etara

egoten da, **Beran** ortzegunetan 9,30etatik 2etara eta **Lesakan** ortzegunetan 12etatik 2etara.

**Leitza-Larraun** aldean Ana Martinez da arduraduna eta ostegun eta ostiralero egoten da **Leitzan** goizeko 10etatik 2etara.

Gizonezkoen Moda



Miguel Angel Cuarango Gury

Mendelu 53 • ☎ (943) 64 18 41 • 20280 HONDARRIBIA



**PESCANORTE S.A.**

ULTRA-IZOZTUTAKO  
ARRAINAK, MARISKOAK, HARAGIAK ETA BARAZKIAK

Tfnoak: 361964 - 361965 • Faxa: 361683  
20160 LASARTE-ORIA (Gipuzkoa)



## DATUAK

❖ *Idoia Mariezkurrena, 24 urteko atleta da.*

❖ *Sortzez donostiarra bada ere, zortzi urtetatik Labaienen bizida, Sarasea etxean. Aitzinetik Mugairin bizia izan zen.*

❖ *Jabalina jaurtiketan, lehendabiziko postuan dago Estatu mailako ranking-ean.*

❖ *Argentinako Mar de Platan burutu diren Joku Ibero-Amerikarretan brontzezko domina eskuratu berria du.*

❖ *'Pamplona Atlético' taldekoa da eta Nafarroako Gobernuak babestutako Larrabide erresidentzian entrenatzen du.*

TESTUA:  
AITOR AROZENA

## Idoia MARIEZKURRENA:

# «Pozik nago brontzezko dominarekin, ez ordea egindako markarekin»

Hogeitalau urte berterik ez izan arren, bederatzi urte daramazki Idoia Mariezkurrenak atletismoaren munduan eta zazpi jabalina jaurtiketan buru-belarri sartua. "Tikitatik kirola gustatzen zitzaidan eta hasieran saskibaloian, eskubaloian eta horrelakoetan aritu nintzen. Nik belozitate egin nahi nuen, baina jaurtiketan hasteko erran zidaten. Disko jaurtiketan hasi nintzen, baina nahiko azkarra nintzela ikusi zuten eta jabalinan hasi nintzen".

### Brontze gazi-goza

Argentinan burututako Joku Ibero-Amerikarretan brontzezko domina eskuratu du eta gustora agertu da balorazio bat egiterakoan. "Neretzeko garrantzitsua izan da txapelketa hau eta pozik nago brontzezko domina honekin, oso zaila baitzegoen". Halere, anekdota berexia gertatu zaio txapelketa honetan. "Azken sei hilabeteetan egin dudan marka txarrenarekin nazioarteko emaitzarik hobereana lortu dut". Baina horrek ez du erran nahi maila bajua zenik. "Maila ona zen eta irabazi zuenak,



Idoia Mariezkurrena labaiendarra, lehendabizikoa da Estatu mailako jabalina jaurtitzailen artean

aurtengo munduko zazpigarren marka onena egin zuen. Baina probaren egunean hiru gradutara geundeten eta hotz xamar aritu ginen. Lehenbiziko jaurtiketak laburrak izan ziren eta gero, tentsioa dela eta, norbera bere postua gordetzen aritu zen arriskatu gabe".

Guztira 22 estatuetako kirolariak parte hartu zuten Joku Ibero-Amerikar hauetan, Espainia eta Portugalekin batera, Hego eta Ertamerikako estatuak, hain zuzen.

### Mediterraneoko Jokoak 95ean

Horrenbertzez, txapelketa honen ondotik akitutzat eman du den-

boraldia Idoiak. "Orain deskantsu ttiki bat hartu eta datorren astean hasiko naiz entrenatzen. Hurrengo konpetizioak apirila edo maiatza aldera izanen ditut. Datorren urtean, gainera, Mediterraneoko Jokoak izanen dira eta hor ere, ea dominaren bat eskuratzeko dugun". Halere, denboraldiko helburu nagusia, "berriz ere Espainiako txapelketa irabaztea" izanen du Labaiengo kirolari bikain honek. ■

» *Joku Iberoamerikarrek denboraldia akitu dut. Orain, deskantsu ttiki bat hartu eta berriz entrenatzen hasiko naiz, Mediterraneoko Jokoak prestatzeko eta Espainiako txapelketa irabazteko asmoarekin»*



# Antonio Bru eta Maika Ariztegik irabazi zuten Lizuniagarako XIV. igoera

Aurtengoan 75 laisterkalarik parte hartu zuten eta Iturengo laisterkalariak probaren errekor berria ezarri zuten emakumezkoetan

Antonio Bru korrikalari beratarrik irabazi zuten aurtengo Lizuniagarako igoera, 17 minutu eta 12 segundutan eginez 4.900 metroko proba.

Bere gibeletik, Amasako Jose Ramon Galarraga sartu zen 26 segundutara eta hirugarren postuan Juanma Irazoki beratarra-iazko irabazlea-sartu zen, 17 minutu eta 50 segunduko denborarekin.

## Emakumeen errekor berria

Emakumezkoetan, Maika Ariztegi iturndarra izan zen garailea, probaren errekor berri bat ezarriz, 20' 37"rekin. Lehengo marka, Maikak berak eta Bellen Zuñigak zuten 20' 47"tan.

Iturendarraren on-



Antonio Bru beratarrik garaipen ederra lortu zuen Lizuniagarako igoeran

dotik, 4 minutu beranduago, Iruñako Rosa Orofino sartu zen eta hirugarren postua Xole Garmendia beratarrentzat izan zen.

Beteranoen mailan, Angel M<sup>a</sup> Aizpiolea irundarrak irabazi zuten, Erreteriko Garcia La-

rrañaga eta Irungo Ricardo Tororen aitzinetik.

Junior mailan, Javier Arozena irundarra nagusitu zen 18'52"ko denborarekin. Bigarren postuan, Doneztebeko Jorge Orbegoza sartu zen ia bi minututara eta

hirugarren postua Amasako Eneko Aranarentzat izan zen.

Gure Txokoa elkarrekin antolatutako proba honek hamalagarren edizioa bete zuen aurtengoan eta guztira 75 korrikalarik parte hartu zuten.

## Bote jarraion

### Inaxio Errandonea

Alkaiagako pilotariak ongi hasi du lau t'erdiko txapelketa. Lehenbiziko partiduan, faboritoetako bateri, Ladis Galarzari hain zuzen, irabazi eta txapelketa-kanpo utzi baitzuen. Hau idazterako orduan, Nagoren kontra jokatu behar zuen.

### Patxi Etxeberria


Doneztebeko erremontelaria bikain ari da denboraldi honetan. Urriko partiduei dagokionez, hamar partiduetatik zortzi irabazi zituen. Modu honetara, koadroko lehendabizikoa izan zen garaipenetan.

## AIZKORA

# Patxi Mindegia desafiaoa botatzen dio Felix Etxeberriari

Patxi Mindegia aizkolarari zubietarrak desafiaoa luzatu dio Felix Etxeberria sunbildarrari eta larunbat honetan paratu zuen zita Doneztebeko Belarra ostatuan. Bertan, hementik hiru hilabetera jokatu zen apostuaren nondik norakoak ezarri behar zituzten bi aizkolariek.

Hasiera batean, Etxeberriaren erantzun-



Patxi Mindegia 20 urte ditu, Felix Etxeberriak 29

naren esperoan, milioi erdi izanen zen jokuan



eta egin beharreko lana 20 kanaerdiko moztea.

# Hamabostaldiko jokaldiak



**Idoia Mariezkurrena** Labaiengo atleta.

Jabalina jaurtiketa ez da ezaguna inguru honetan, baina halar, Labaiengo neska hau Espainiako txapeladuna da. Joku Ibero-amerikarretan brontzezko domina eskuratu berria du. Segi horretan!

**Eskualdeko futbol-sala taldeak.**

Ez diote hasiera onik eman aurtengo denboraldiari. Bigarren mailan ari diren Umore Ona goizuetarrak eta Beti Gazte lesakarrak, gibelesko postuetan daude. Berako Gure Txokoa-koak ere berdintsu.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

# AGENDA PRAKTIKOA

## IKASTAROAK

### ELIZONDO

► **Bertako historiari hurbiltze etnografikoa.** Arizkunenean, azaroaren 21etik aitzinera Mikel Ozkoiri irakaslearekin. Iraupena: 10 ordu. Astelehen eta asteazketan, 7,30etatik 9,30etara. Izen ematea: Azaroaren 11a bitarte, 500 pezetaren truke.

### FERIAK

### DONEZTEBE

► **Azaroaren 18an.** Eguerdian bertsolariak eta arratsaldean aizkora apostua Gipuzkoa-Nafarroa.

### LESAKA

► **Azaroaren 24an.** Xehetasunak erdiko gehigarrian.

### EUSKARAREN EGUNAK

### BERA

► **Azaroaren 15, 17, 22 eta 24an** Euskari buruzko hitzaldiak izanen dira Gure Txokoa.

### GUARDIAKO BOTIKAK

► **Azaroaren 14tik 20ra** Bera, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.  
 ► **Azaroaren 21etik 27ra** Arantza, NARBARTe, Irurita, Urdazubi eta Goizueta.  
 ► **Azaroaren 28tik abenduaren 4ra** Lesaka Doneztebe, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

## ERREZETA



### Ilar, banabar edo babarrunak



Asuncion TXOPERENA  
Xaturetxea  
Jatetxea  
•LESAKA•

**Osagaiak**  
• 500 gr. ilar • urdaia • zerri saiheskia • txorizua edo odolkia • tipula bat

### Prestatzeko manera

**Ilar xuriak**  
Ilarrak bezperatik beratzen jarri. Jeiki orduko eltze batean ilarrak

paratu eta ura bota tapatu arte. Irakiten hasten direnean tipula xehe-xehe eginda, urdaia, zerrri saiheski eta txorizua erantsi eta utzi egiten su xuabeen. Ilarrak ongi eginak daudenean baratxuriekin egindako sofrito bat bota gainetik.  
**Ilar beltzak**  
Ilar xuriak bezala egiten dira beltza ere, baina txorizurik bota gabe.

Aparteko ontzi batean odolkia egosi uretan eta serbitzerakoan bero-beroa jarri aparteko plater batean.  
 On egin.

## BASERRIA



### ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 3.900 pza.  
 •Zerri gizena (95-100): 142 pza./kilo  
 • Zerramak: 110 pza./kilo bizirik.



### BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
 Idixkoak: Pzta/kg. Kanal  
 Extra ..... 600  
 1.koa ..... 570  
 2.koa..... 540

**Urruxak:** Pzta/Kg. Kanal  
 Extra ..... 610  
 1.koa ..... 580  
 2.koa ..... 545  
 Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.  
 •Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak:** urruxak 23.000 eta idixkoak 34.000 Pzta.  
**Mestizoak:** urruxak 40.000 eta idixkoak 52.000 pzta.  
 •Behi zaharrak:  
 Behi nabar gizena: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490 Pzta /Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



### FRUTONDOAK

Hiru urteko landare bakoitza  
 • Bertako sagarrondoak 930.  
 • Udareondoa 930 pta.  
 • Gereziandoa 1.050 pta.



### BARAZKIAK

•Piper txorizero zientoa 800.  
 • Piper morro zientoa 800.  
 • Piperminak zientoa 600.  
 • Valentziar tipula zient. 250.  
 • Letxuga zientoa 400 pta.  
 • Azelga zientoa 400 pta.  
 • Pepino sorta 25 pta.

**ETXANDI TXOKO erretegia**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91

**AMEZTIA**  
**Jatetxea - Hostala**  
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
 Tf: 450028 - DONEZTEBE

**BELARRA** Kafetegia

Plater konbinatuak  
 Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



## JAKIN BEHARREKOA

### Elikadura: Zuntza, fibra edo janari hariduna

Pertsonak osasun onari eusteko ongi osatu eta prestatuak diren janariak jan behar ditu. Janari aukera haundia erabiltzeak asko lagunduko digu gure gorputza elikagai guztietaz osatzen. Otorduetan, txandaturuz, maiz erabili behar dira: eltzari gauza, zerealak, barazkiak, fruta, ur-intxaurreak, ximelduak (aranak, paxak...), esnekiak, arraultza, haragia eta arraia. Hontara, beharrezko proteinak, azukre, olio, bitamina eta mineralak lortuko ditugu. Elikaduraren inguruan sortzen diren arazo nabarmenenak hauek dira: azukre eta irin txuriekin egindako janari gehiegikeria; eltzari, barazki eta fruten janari eskasia; alkohola eta tabakoaren eragin txarra; janariaren kutsadura.

#### Zuntza edo fibra

Pixkanaka, azken urteotan, zuntza duten janariak baztertzen ari gara eguneroko otorduetatik. Bainan zuntzak eragin ona dauka gaur gailentzen ari zaizkigun gaitz mordoxkaren aurka.



**Zuntza edo fibra duten janariak jatea funtsezkoa da osasuntsu mantendu nahi baldin badugu**

Zuntza asko duten janariak hauek dira: barazkiak, ogi beltza, zerealak azal eta guzti, eltzariak, fruta freskoa, ximel eta ur-intxaurreak. Kolesterol, triglizerido gehiegizkoa, diabetesa, bihotz-zainetako gaitzen eta esteetako minbiziaren aurka ona da maiz jatea: sagarra, aza, azenarioa, azalorea, ilarrak, patata, garagar eta olo azaldunakin egindako ogibeltz eta irina, babarrunak eta ur-intxaurreak.

Ezin libratua, behazun hariak, este lodiko minbizia eta ezin asearen kontra onak dira: irin azaldun guztiak, ogibeltza, berenjena, udarea, sagarra, marrubiak, azenarioa, arroza, makarroia, fideoa, olo eta gari

malutak... Hogeita hamar (30) gramo zuntz jan behar litzateke egunero janari hauen bitartez. Hau aisa lortzen da ohizko kantitateak jaterakoan. Gehiegi jatea oso zaila da, izugarritzko pila jan beharko litzateke eta; bainan orduan burnia, urraidea, zinka eta beste mineralen eskasia sorlezake gorputzean.

Aprobetxa ditzagun gaur egun sukaldeetan ditugun erretxasunak eta gure amonen eltze tarteko jakinduri eta graziari eutsiz, ase ditzagun gosea osasunari begiratuz.

JOXE JABIER ETXEBERRIA  
(MEDIKUA)

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

#### LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

#### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

▮ **Azaroaren 14tik 30era.** Arizkunenean arratseko 7etatik 9etara, Aitzinako argazkien berreskuraketa kanpainarako utzitako argazki zaharren erakusketa.

## BERTSO AFARIAK

### ARESO

▮ **Azaroaren 26an.** Larrea elkarteetan, Lizaso eta Murua, Euskara Zerbitzuak antolatua.

### OITZ

▮ **Azaroaren 19an.** Elkarteetan, Amuriza eta Sorozabalekin bertso afaria.

## ANTZERKIA

### BERA

▮ **Azaroaren 19an** Kultur Etxean, arratseko 10etan, 'Pecata Minuta'.

## MUSIKA

### ELIZONDO

▮ **Azaroaren 20an** arratseko 8etan, Kasinon, Ganbara taldea.

▮ **Azaroaren 27an** arratseko 8etan, Kasinon, Perlinpinpin Folk taldea. 'Folk ametsetan' zikloaren barnean.

## GOIZUETA

▮ **Azaroaren 26an** gaueko 10,30etan, Mikel Markez, Gazte Asanbladak antolatua.



ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

## ETXEBIZITZAK

**DONEZTEBE.** Pisua salgai baratze eta bajerarekin. Interesatuok deitu 7etatik 9etara. ☎ 635097.

**BERA.** Pisu bat erosiko nuke. ☎ 630856 (goizez, 2ak arte).

**BERA.** Pisu bat alokatu nahi nuke. ☎ 630551.

**BERA.** Pisua eta bajera salgai. ☎ 630821 (eguerditan).

**LESAKA.** Lesakan pisua salgai. 90 m<sup>2</sup> eta 20 m<sup>2</sup> terraza eta trasteroa. ☎ 627507 (gauetan).

**LEGASA.** Pisu amueblatua alokatzen da. ☎ 943-614735.

**ZIGA.** Etxea salgai. Hiru planta, bakoitza 65 m<sup>2</sup>koa. ☎ 580762 (eguerditan).

## DENETARIK

**Sukalde** kalefaktora salgai. 'Lacunza' markakoa da. ☎ 637883.

**Dantza** kontemporaneo Beran. Dantza ikasi nahi

baduzu orain duzu aukera Beran azaro ondarran hasiko den tailerran. ☎ 943-632696.

**Sukalde** mobleak eta elektrogailuak, egongelako armarioa eta mahaia lau aukirekin, lanparak eta bainuko armarioa salgai. Prezio onean. ☎ 599008.

**Traktore** karroa salgai, bi urtez erabilia. Ia berria. ☎ 581039.

**Mendi** bizikleta salgai, ibili gabea. ☎ 510159.

'**Bolillo**' enkajeak egiten ikasteko klaseak ematen ditut. Deitu 5etatik 8etara. ☎ 630680.

**Gitarra** eta baju klaseak ematen dira. ☎ 630217.

**BERA.** 60 m<sup>2</sup>ko lokala alokatzeko Kanttonberri karrikan. ☎ 630313.

**Irakasle** tituluduna eta EGArekin, urte osoan Beran zein Lesakan klase partikularrak emateko prest (euskara, OHO, REM, frantsesa...). ☎ 630182-637839 (Klarisa).

**Ezkontza** soinekoa salgai. Xuria, 42-44 neurrikoa. Udakoa. ☎ 610858.

**Flauta** travesera salgai, zilar koloreko muturrarekin eta egoera onean. ☎ 637787.

**Koneju** edo untzien gorotza nahi izanez gero, debalde emanen dut. ☎ 450595.

## IBILGAILUAK

**Citroen AX** 4x4 kotxe ekipatua salgai. 93 urtekoa, NA-AH matrikula eta 14.000 kilometro eginak. ☎ 630229.

**Mobileta** salgai. ☎ 630733.

**Volvo 440** 1.8i kotxe berri-berria salgai, SS-AP matrikuladuna eta 20.000 kilometro besterik ez ditu eginak. (943) 625728.

**Lada Niva** kotxea. NA-AD matrikuladuna salgai. 23.000 km, oso egoera onean, pintatu berria eta extrakin. ☎ (943) 276709 (arratsetan).

**Talbot Horizon** 1.5 beltza salgai. Aleazioko lantak ditu. 150.000 Pta. ☎ 635101.

**Renault** 11 NA-N salgai. Prezio onean. ☎ 451591.

**Yamaha** IZ 125 cross-ekoa salgai. 90ekoa. Ongi zaindua. Deitu eguerdiko 1etan edo arratsaldeko 8etan. Iñaki ☎ 627530.

## LANA

**Pelukera** tituluduna eta esperientziarekin lan bila dabil. ☎ 450322.

**Kartelak,** Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188 (bulego orduetan).

**45 urteko** emakumea naiz eta amona eta atona zaharrekin lana egiten nuke beren etxeetan, Bera edo Lesakan. ☎ 637011 (goizeko 8etatik 3ak arte).

## AZIENDAK

**Bi asto** eder beren umeekin salgai Saldiasen. ☎ 615016.

**Astemea,** urtebetekoa salgai. ☎ 615016.

**Bi behi** salgai. Bata hirurtekoa eta 6 hilabete terdi ernari dagoena eta bertzea 7 urtekoa, bi hilabete terdi eranari dagoena. Josetxo Etxegarai. Lesakako Pilotaleku ondoan bizi naiz.

**Mando** bat salgai. ☎ 635186.

'**Pastor Aleman**' arrazako zakurkume sortuberriak salgai. ☎ 450595.

## AGURRAK

**Ezkurrako** Oskar Telletxea eta Mirari Mariezkurrenari zorionak zuen urtebetetzean (urriak 25 eta 27). Ezkurrako lagunenez partez.

**Lesakako** Ainhoari bere 23. urtebetetzean zorionak eta muxu handi bat. JMM



## ZALAIN MOTOR

MEKANIKA • KARROZERIA • ELEKTRIZITATEA • GRUA  
 © eta Faxa 63 11 57 • Telefono mugikorra (908) 77 80 23  
 • BERA •



**Transit Berria. Liderra.**

- Airbag bikoitza (bere mailakoetan bakarra).
- Itxiera zentralizatua.
- Direkzio asistituaz hornitua.
- Leiho altxatzeko elektrikoak.
- Haize egokitua aitzinean eta gibelean.
- 12m<sup>3</sup> arteko kapazitatea kargarako.



**Transit Berria zure behar guzietara egokitzen da. Kontsultaiguzu. Zalain Motor-ek preziorik hobereanean eskaintzen dizkizu ibilgailu industrial guztiak.**



**Gida 95**

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako  
PROFESIONAL, KOMERTZIO eta LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

orain, **ttipi-ttapa** argitaratua

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala.
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa desberdinekin.

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88



**ttipi-ttapa**

# Aukera paregabera

Edozein autorendako  
**GURPILAK**

**5.615** pezetatatik  
aitzinerat  
IVA  
barne

ETA GAINERAT...  
DOHAINIK

PARATU, BERDINDU ETA  
NIBELAK IKUSKATU

BEREHALAXEKO HARRERA, AITZINETIKO ESKAERARIK GABI  
ORDU BETEAN BAINO FITEAGO

Abenduaren 31ra arteko eskeintza

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**  
RENAULT • ELIZONDO

Frantziarako Bidea, 57. Km. Tf. 58 04 31/6



CONTINENTAL

NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK
145/70/13	155/70/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14
5.615	6.270	7.040	7.915	9.465




# CALVO

## JANARIDENDA


Plaza Zaharra 2  
Tfnoa • Faxa: 63 70 59

### Lesaka



# MARTIKO

Gastronomia gustoko baduzu,  
MARTIKOrekin batera urrun ailegatuko zara



- Ahate gibela
- Urdaiazpikoa
- Ahate paparra
- Ahate hegala
- Ahate izterrak
- Izoki keztatua

GURE PRODUKTU GUZTIAK  
OSASUN BALDINTZA  
ZEHATZENEKIN EGINAK  
DIRA

Zalain Poligonoa, Bera (Nafarroa)

Tfnoa: (948) 63 07 00

Faxa: 63 12 13